

# ALBERTO IÑURRATEGI

## ZORTZI EGUN ANNAPURNAREN BESORIK LUZEENEAN

Ramon Olasagasti

**B**

*I mendizale: Alberto Iñurrategi eta Jean Christophe Lafaille, motibazioz gainezka eta eromen dosi doiarekin. Hiru bibak gailur desiratu harrapatu eta itzultzeko. Lau egun 7500 metroz goitik, ipar aurpegi pitzatua eskuinera eta hegoko amildegiak ezkerrera. Zazpi kilometro eta erdiko oilar gandorra, zatirik zailenetan harkaitz biluzian. Zortzi egun hego-ekialdeko ertzaeren joan-etorrian.*


*Hamalau zortzimilako eta ibilbide eder bati txapel dotorea. Dударik gabe, zortzimilako ohiko igoeretatik oso bestelakoa izan da Alberto Iñurrategik eta Jean Christophe Lafaillek Annapurnako besorik luzeenean egin duten hau. Erhard Loretan eta Norbert Joosek lehen aldiz igo zutenetik hemezortzi urte betetzen diren honetan, ertzaeren lehen errepikapena izan da eta aurreneko aldia joan-etorria bide beretik egiten dena.*

Maiatzaren 18an euren indarren muga-mugan zebiltzan bi mendizalek -Alberto Iñurrategik eta Jean Christophe Lafaillek- Annapurna hegoaldeko kanpamendu nagusia harrapatu zuten, beste mundu batetik bueltan lur hartu izan balute bezala. Euren pausok zelaia aurkitu orduko arnas hartu zuten kanpamentu nagusiko kideek eta Euskal Herriko beste hainbat lagunek ere. Annapurnako igoeraren amaiera zen, zortzi eguneko agoniaren bukaera, 14 zortzimilakoen itxiera, euskal himalayismoaren jarduera nabarmenaren bukaera zoriontsua...

Erronka fisiko bat baino gehiago izan da, ordea, Annapurnako igoera hau. Zortzi egun izan dira Oparotasunaren Jainkosaren besoetan, besorik luzeenean sufritzen, zalantzaren eta kezkaeren kulunkan loak hartzen, arriskutzen, beldurra pasatzen, lagunarte eta taldegiro bikainean gozatzen, norbere mugak ezagutzen... Albertok hego-ekialdeko ertzean utzitako arrastoa baino handiagoa izango da mendiak Albertorengan utzitakoa. Annapurna jada ez da harkaitz eta elurrez osatutako mendi huts bat izango Alberto Iñurrategirentzat eta euskal mendizaletasunarentzat ere ez.

Lionel Terrayk zioen mendiak horixe baino ez direla: mendiak. Harkaitz, elur, ertz, glaziar, artesi eta tontorrez osatutako natura puskak. Izan dezakete forma dotoreagoa edo itsusiagoa, zorrotzagoa edo kamutsagoa; egon litezke elurrez estaliak edo harkaitz biluzian, astindu ditzake haizeak kupidagabe edo eguzkiak bero galdatan kixkali, baina mendi izaten jarraituko dute. Alabaina mendiak ez dira kirol eszenatoki hutsak, ez dira frontoiak edo futbol zelaiak, non mendizaleek beren kirola egin izan duten. Annapurna mendi bat da, baina Herzog, Lachenal, Terray edo Rebuffantentzat zerua eta infernua batzen diren tokia ere bada; eta Herzogen kasuan egundaino jarraitu dion itzala. Jean Christophe Lafaillementzat ere munstro bat zen Annapurna: duela 10 urte justu Pierre Beghin laguna irentsi eta beste bi alditan modu txarrez bidali zuen munstro bat.

Alberto Iñurrategirentzat ere bazuen mamu antza Annapurnak. 2000. urtean ipar aurpegitik eman zioten begiratu anaia eta biek, eta ez zitzairen batere gustatu bere kopeta mehatxukor hura. Ia aldi berean esan zioten kaixo eta agur. Geroztik beste bi mendi



**EKIALDEKO ANNA PURNA (8068 m)**

**Lehen bibaka (7500 m) (2002-5-14)**  
Roc Noir edo Hartz Beltza gainditzen bost ordu igaro ta gero hainbat metro aurreratu zituzten ertzean eta 7500 metrotan jarri zuten denda, lehen bibaka

**Roc Noir (7495 m)**

**Bigarren bibaka (7900 m) (2002-5-15)**  
Ekialdeko Annapurnaren gailurraren ertzean zuten jarduera zuzenaren 4711 metroko bigarren bibaka. Biharamonean zuten gailur nagusia (8091 m)

**Hirugarren bibaka (7400 m) (2002-5-16)**  
Gailurreko egunean bertan, ertzean eta altueran hainbat egunen ondoren, 7400 metroan egin zuten hirugarren bibaka. Gas ondar batekin eta nekatuta oso, ez zen bibak gozoa izan

**ERDIKO ANNA PURNA (8068 m)**

**ANNA PURNA NAGUSIA (8091 m)**

**Zeharkaldia:** Ekialdeko Annapurnatik (bigarren bibaka egin zuten lekutik) Annapurna Nagusiko maldak harrapatu arte, zeharkaldi tekniko samarra egin behar izan zuten mixtoan eta elurretan. Tortorretatik joetea ezinaren hurrengoa zen, elurrik gabe baitzeuden. Loretanek duela 18 urte aurkitutako baldintzen aldean oso bestelakoak izan dituzte Inurrategiak eta Lafaillek

**Rappela:** Annapurna Nagusiko maldetara pasatzeko 50 metroko rappel bat egin zuten, juxtu mendiak ate guztiak itxiko zizkiela uste zutenean

1

2

ARGAZKIAK: ALBERTO INURRATEGI

handi tartekatu dira Albertoren bizitzan: Gasherbrum I eta II. Hauek ere, anaiak izan arren, bi mendi besterik ez dira, baina zenbat taupada eta sentimendu korapilatzen ote dira beraietan? Batek umezurtz utzi zuen sokaldi bat, eta besteak mendi handietarako grina itzuli zion Albertori. Izan ere, bizitza ez baita mendi batean ez hasten, ez bukatzen. Eta jarraitu egiten duelako, Albertok nahi eta nahi ezko hitzordua zuen Annapurnarekin.

Nondik sartuko zioagu pioleta mendi alu honi? Azken urtebetean galdera horixe bera ibili dute buruan Alberto Inurrategiak, Jon Lazkanok eta Jon Belokik, Annapurnan ataka bat nondik zabaldu. Ipar aurpegia pitzatua, seracez josia, elur-jausientzat irristaz betea eta arriskutsua iruditzen zitzairen. Eta hegoa, beste hainbeste: tentea eta arriskutsua. Hala, behetik ibiltzea baino goitik ibiltzea hobe izango zela pentsatuta, ekialdeko ertzari erreparatu zioten, huraxe iruditu zitzairen bide polita eta segurua. Erhard Loretan eta Norbert Joos suitzarrek 1984an egindako bidea, geroztik gailurreraino inork errepikatu gabea. Elur-jausietatik babesa zirudien ertzak, baina bazuen oztopo txiki bat: neurria. Zazpi kilometro eta erdi luzatzen zen Annapurnaren ekialdeko besoa. Luzea zen, zaila, haizetsua, agerikoa, gogorra, exijentea eta ihesbide gutxikoa, baina segurtasunaren mesedetan ordaindu zitezkeen zailtasunaren prezioa. Alegia, norbere segurtasunaren alde, merezi zuen gailurraren arrakasta arriskuan jartzea.

Ez ziren euskaldunak Annapurnarekin dantzan zebiltzan bakarrik. Jean Christophe Lafaille frantziarra, Ed Viesturs estatubatuarra eta Veikka Gustafsson finlandiarra ere asmo beraren inguruan zebiltzan jira eta buelta. Mendiak, bideak eta mendizaleek halako izen-abize-

nak dituztenean, azkar zabaltzen dira berriak eta horixe gertatu zen oraingoan ere. Bostak hartu-emanetan izan ziren joan aurreko hilabeteetan eta, azkenik, indarrak batu eta bidearen neurriko taldea osatu zuten.

**KATMANDUKO AFARI HURA LORETANEKIN**

Ertzaren nondik norakoak jakiteko bi ate baino ezin zitaketen jo: bat Erhard Loretanena eta bestea Norbert Joosena. Loretanekin jarri ziren harremanetan e-mail bidez espedizio-ira joan aurreko hilabeteetan, baina Loretanen alabatxoaren zoritxarreko heriotzak eten egin zuen hartu-eman. Informazio aldetik eskas joan ziren, beraz, Nepalera, "zalan-tza handiekin eta aukera gutxi izango genuela jakinda", dio Albertok. Katmandun, ordea, nor topatuko eta Loretan bera, Pumorira espedizio komertzial bat gidatzera joana. Norbert Joos ere ez zebilen urrun, Makalura joana baitzen beste suitzar batzuekin. Oinak Izarretan espedizioa kideek Loretanekin afaldu zuten Katmandun eta elkarrizketa argigarri baino gehiago lasaigarri egin zitzairen. "Zuzenean pasarte tekniko-tera joan ginen, eta espero baino errazago jarri zizkigun. Elkarrizketa haren ondoren, animosoago ater ginen Katmandutik, ertza jada ez zitzaigun hain ezinezkoa iruditzen. Hala ere, sekula ezin duzu kalibratu Loretanek esandakok ze mailatan aipatzen dituen". Urteek, gainera, zailtasunak eta oztopoak lausotu egiten dituzte antza; izan ere, bere garaian Himalayan inoiz egin zuen igoerarik gogorrena eta zailena izan zela aipatu zuen alpinista suitzarrek.

Modi Khola bailaran gora inguratze bide atsegina egin ondoren, apirilaren 9an iritsi ziren kanpaleku nagusira (4200 m). Parez pare, Annapurnaren hego aurpegia,

- 1 ■ 2º kanpaleku glacier Dome atzean
- 2 ■ Itinerarioa alde bietatik ikusita



kopeta zuri eta begiratu beltza. Baina batez ere aurpegi haren teilatuari begiratu zioten eta hura ere izugarria zen, izutzeko modukoa, alegia. "Ostias, azer nolako ertz puska!", bota zuen Jon Belokik teleobjetiboarekin egin zuen lehen begiratu hartan. Argazki frankotan ikusi arren, bertatik bertara beste neurri bat hartu zuen erronkak. Ordura arte eduki zuten gertuen zegoen hego-ekialdeko ertza, baina lehen ikustaldian inoiz baino urrunago begitandu zitzairen. Egun berean iritsi ziren espediziokide atzerritarrak, Annapurnako beste hiru apopiloak: Lafaille, Viesturs eta Gustaffson.

Denbora asko galdu gabe ekin zioten lanari. Ekialdeko ertza harrapatu artean ia 3000 metroko aldapa zuten aurrez aurre. Tartean zati tekniko samar batzuk ere bai. Beste modu batera esanda: lana erruz. Sherparik ez zuten eta lantaldea ere ez zen sobera handia; alegia, altuerako buzoak ez, baina langile buzoak janzea tokatzen zen; burni guztiak eta soka bobinak motxilan hartu eta asto lana: "Ekipamendu eta porteo lanak neketsuak izan ziren; lehen kanpamendura iristeko bakarrik bost orduko bidea geneukan, bost ordu baina emanda! Bidean haitza eta elurra, terreno zailegia ez, baina lana eskatzen zuena. 5400 metrotan jarri genuen lehen kanpamentu hori, glaziarraren buruan kokatutako zelaigune batean. Haraino 400 bat metro soka finkatu genituen". Ondoren hasi zen materialaren garraioa. Jon Lazkano eta Juanjo San Sebastian ere gogotik aritu ziren lan horretan. Lan eskerga euren, sherparik finenak baino gehiago penatu zituzten euren bizkarrak.

Bigarren kanpamendura bidean, beste oztopo nabarmen bat: Singu Chuli gailurraren paretan, mistoa eta izotza. Terreno tente samarra aurkitu zuten zati horretan, nahiz eta behin sokak finkatu eta gero bidea nolabait leundu. 6400 metrotan jarri zuten bigarren kanpamentua, apirilaren 22an. Hala, aste pare batean bide asko urratu zuten. "Zortea ere aldeko izan genuen, lanegunak eguraldi onarekin egokitu zirelako". Hirugarrena jartzeak lan gehiago eman zien: eguraldiak okerrerako joera hartu zuen, zailtasun teknikoak ere gehixeago ziren, distantzia handiak ertzerantz atera arte, elurra ugari... Azkenik, altueran bost egun luze egin zuten, maiatzaren lehen astea bukatzeaz zela jarri zuten hirugarrena, 7000 metrotan. Eurek nahi baino beheago. Asmoa zen 7300 metro inguruan jartzea kanpaleku hori, Roc Noir-etik ahalik eta gertuen, baina eguraldiak ez zuten horretarako aukerarik eman.

Hilabeteko jardunak eta altuerak on egin zion Albertori. Annapurnara joan aurreko asteetan belauna minbera zuela ibili zen, nahiko lukeen beste entrenatu ezinik, kezkatu samar. Mendira joan aurretik bete beharreko agenda estuak eta toki denetara iritsi ezinak ere eman zion burukomin franko. Mendira iristearekin batera, ordea, batzuk altueraren ondorioz burukominez hasten

direnean, akabo Albertoren burukominak, eta baita belaunekoak ere. "Beharbada beste batzutan baino gutxiago entrenatuta, baina hala ere, neure buruarekin gustora egoteko moduan joan nintzen. Oso motibatuta, hori bai. Eta bidea prestatzeko lanetan, motxila handiarekin eta pisuarekin ibili arren, belaunak ez zidala arazorik eman ikusita, horrek asko animatu ninduen, ikaragarri jaso zidan morala".

#### ■ LAFAILLE ETA EUSKALDUNEN ARTEKO KIMIKA

Txirrindulariak taldekako erlojupekoan bezala aritu ziren, bakoitzak berea emanez, denak lanean, etapa gogorrenak artean etortzeko zeudela eta inor ez zen indarrak gordetzen aritu. "Hasiera-hasieratik egin zen, gainera, lan banaketa, oso modu naturalean egin ere. Buruan Lafaille, Beloki eta hirurok ibiltzen ginen bidea ekipatzen, segurua eta sokak jartzen eta atzetik Viesturs eta Veikkak ekartzen ziguten ekipatzeko materiala". Lan dinamika horrek, elkarrenganako konfiantza sortu zuen euskaldunen eta Lafaileren artean. Eta indar metatzeko horrek psikologikoki berebiziko garrantzia izan zuela onartu du Aretxabaletako mendizaleak: "Talde polita egin genezakeela ikusi genuen eta gailurrera begira esperantza gehixeago sortu zuen horrek. Lafaille moduko alpinista bat ondoan edukitzeak ematen du indarra, motibagarria da beti.

Antza denez, elkarrenganako sentimendua. Jean Christophe Lafaille berak ere bazekien bi mendizale euskaldunak alboan izan ezean, jai zuela gailurrerako saioan. Tontorreko ahalginari ekin zioten egunean, Lafaille, Viesturs eta Veikka elkarrekin atera ziren kanpaleku nagusitik; Alberto eta Beloki atzeratu egin ziren, egun hartan bertan bailaratik zama eramale batek ekarri behar zuten telebista kamera baten zain. Ez zen nahi orduko iritsi zorieko kamera eta eguerdia pasata abiatu ziren lehen kanpalekurantz Inurrategi eta Beloki. Bitarte horretan, Lafaillek etengabe galdetu omen zuen bi euskaldunengatik: "Baina ziurra da gaur igoko direla?". Frantziarrak sumatzen zuten ordurako nor izango zuten bidelagun.

Dena gertu zegoen. Hiru kanpaleku finkoak jarrita, sokak finkatuta, gorputza altuerara aklimatatuta... Annapurnaren hego eta ipar aurpegiak banatzen zituen laban aho hura zeharkatzeko garaia iritsi zen, zazpi kilometro eta erdiko ertz hark zer-nolako ezustekak gordetzen zizkien ezagutzeko garaia. Bost himalayistek ez zuten inoiz halako gailur erasorik egin: dena ondo joatera, zortzi egun beharko zituzten igo eta jaisteko. Taldekideetako batzuk dozenaka zortzimilako igo arren, halako igoerari ez zioten inoiz aurre egin. Astebete luze Annapurnaren besoetan, besorik luzeenean. Eguraldia eta haizea, horiexek ziren faktore erabakigarriak: "Eguraldi oneko tarte luze bat behar genuen, eta egun horietarako

iragarpenak onak ziren. Egunez egun jasotzen genituen Chamonixetik eta Benasquetik eguraldi parteak eta hori oso-oso inportantea izan zen".

Maiatzaren 11, 12 eta 13an lehen, bigarren eta hirugarren kanpalekuak harrapatu zituzten hurrenez hurren, inolako arazorik gabe. Handik gorakoari ere fede handiarekin ekin zion Albertok; Loretanen kontakizunak, belauna osatu izanak eta Lafaileren babesak motibazioa gorpuztu eta, aldi berean, arindu egin zuten zertxobait halako bide batek sor dezakeen zama psikologikoa. Ertzean sartu zirenean eta Roc Noireko igoerari ekin ziotenean, ordea, berehala akordatu ziren Loretanekin eta haren hitzekin. "Erraza!", esan zuten euren kolkorako. Gogoratu behar da Loretan eta Joosek Roc Noir gainera arte finkatu zituztela sokak; Oinak Izarretan taldeko kideek, ordea, nahikoa beheran utziak zituzten soka finkoak.

#### ■ ROC NOIR: LEHEN OZTOPO SERIOAK

Haitz Beltzaren igoeran geratu ziren Viesturs estatubatuarra eta Veikka finlandiarra. Albertok eta Lafaille oso tente eta elurrez kargatu samar aurkitu zuten igoera; elurrolde arriskua handi samarra zela aitortu dute. "Motxilarik gabe igo genuen Roc Noir. Hasieran zeharkaldi itsusi samar bat egin genuen sokarik gabe, baina ikusi genuen modu hartan jarraitzerik ez zegoela. Soka atera eta, nahiz eta mantsago joan, zuhur jokatzera erabaki genuen. Lehenbizikoak motxila beheran uzten zuen, arrastoa ireki, 100 metro soka jarri goian, jaitsi eta motxilarekin berriro gora. Horrela, txandan-txandan igo ginen Roc Noirra. Pare bat ordutan igoko genuela uste eta azkenean bost ordu behar izan genituen". Roc Noir, ertzaren almena edo zaindari nagusietako batek argi gorri guztiak piztu zituen: "Txo! hau duk ertzaren benetako neurria eta ez Loretanek Katmanduko afarian esandakoa".

Jon Belokik ere lehen egunean teleobjetiboarekin ikusitakoa baieztatu zuen ertzaren lehenbiziko pauso haietan, huraxe zela Annapurnako hego-ekialdeko bidearen benetako neurria. Pentsamendu asko katramilatuta ziztaion zarautzarrari hirugarren kanpalekutik atera orduko: gaur akaso jarraituko ziate, baina bihar eta etzi? Eta gero bueltako bidea? Zer ote dago Roc Noir horren atzean? Berak zekien hobekien non zegoen eta nora zihoan, nola zegoen bera eta nola zeuden besteak eta, ondorioz, berak ez beste inork har ez zezakeen erabakia hartu zuen: jaistea. Albertoren irudiko gauza txiki asko pilatu zitzaizkion Joni: "besteok baino esperientzia gutxiago zeukan eta ez zuen bere burua besteok ezagutzen genuen beste ezagutzen, fisikoki ere beharbada nekatuxea- go iritsi zen hirugarren kanpalekura, zalantzak zituen, motibazioa ere guk adina ez...". Zirt edo zart egiteko unea ere huraxe zen, behin Roc Noir gainditu eta gero alpinista bakar

- 3 ■ 5<sup>o</sup> kanpoa  
7900 metrotara.  
Dhaula Atzean
- 4 ■ Lazkano eta  
San Sebastian  
1<sup>o</sup> kanpotik (5400 m)  
porteoia eginda

batentzat funanbulista ariketa arriskutsua zelako baka- rrik bueltatzea. Montaña Rusa batean bezala, behin igoz gero, jadanik ez zegoen atzera bueltarik, eta ekialdeko ertzak Montaña Rusa baten traza handiegia zuen.

Roc Noirretik ikuspegia ederra bezain etsigarria zen. Tontorra, tontor nagusia, tokitan zegoen, gandorren beste aldean, eta oilar gandorra bezala aurrez beste hainbat gain eta tontor ikusten ziren gaintzeko. Oilar gandor hari oilaru beste irtenbiderik ez zuten. "Niretzat hasierako ikuspegi hura gogorra izan zen. Ertza askoz errazagoa izango zela uste nuen. Roc Noiretik lehenbiziko metroak oso teknikoak ziren, tarteka 60° graduko palak zeuden, eta motxila handiarekin eta sokarekin lotu gabe, ez zen batere erraza. Lafaille oso tekniko da eta hark beharbada ez zuen arazorik, baina nik zalantza batzuk izan nituen hasiera hartan. Huraxe izan zen igoerako une kritikoenetako bat".

Roc Noir edo Haitz Beltzaren magalean paratu zuten denda eta hantxe egin lehen bibaka. Haizea zakar samar ibili zen gauean, ertzeko elurrak eta bi mendizaleen kezkek harrotzen, baina egunsentiarekin baretzera egin zuen. Zuzen zebiltzan Chamonixeko eta Benasqueko eguraldi parteak. Egundorretako terrenoa, gainera, amaiera arte behintzat, ez zen batere zaila. Amaiera alde horretan Ekialdeko Annapurna zuten zain, gandorren hiru gailur nagusietako bat, lehe- na. "Ertzean sartu orduko ikusi genuen, ordea, harkaitz bizian zegoela, oso elur gutxiarekin; Loretanek eta Joosek 1984ko udazkenean aurkitu baldintzak eta guk aurkitutakoak zeharo bestelakoak ziren. Ikusten genuen elur korridore bat nahiko gora iristen zela, Ekialdeko eta Erdiko Annapurnaren arteko lepora iritsiko ote zen esperantza ere bagenuen; eta hari jarraitu genion. Tentea zen oso eta han ere motxila behera utzi, korridorea egin, berriro jaitsi eta motxilarekin berriro igo, horrela ibili ginen, zortzimila metroko marratik oso hurbil jada".

Leher eginda paratu zuten bigarren bibaka, Ekialdeko Annapurnaren tontorretik 200 bat metro beherago, toki aldapatsuan. Motxilaren pisua, barruko soka, torloju, piolet, iltze, estaka, denda, gasa, janari, bideo eta tresneria guztia- ren zamak (15 bat kilo) eta altueraren eraginak kastigu gogor samarra eman zien bi mendizaleen gihar eta hauspo- ei. Denda paratzeko ere gogotik egin behar lan, aldapa zelai- tzen. Okerrera ez zen hori, ordea, biharamunean ertzak non- bait ateak itxiko zizkien beldurra baizik, etorri zitekeenaren kezka.

#### ■ ZORTEA LAGUN GAILURREKO EGUNEAN

Maiatzaren 16an Ekialdeko eta Erdiko Annapurnaren arteko lepora irtetako terreno misto (haitz apurtua eta elurra) kon- plikatu samarra gainditu behar izan zuten, zeharkaldia egi- nez baina zertxobait gorantz. "Zati horretan Jean Christophe Lafaileren eskarmentua klabea izan zen. Lepora iritsi ondoren, Erdiko Annapurnaren sahetsetik jarraitu genuen, ertzetik jarraitzea oso- oso zaila eta luzea zen- terreno nahikoa delikatu- an. Erdiko eta Nagusiaren artean ez genuen igarobide argirik ikusten, baina zeharka-zeharka jarraitu egin genuen, esperantza oso gutxiarekin, egia esan". Annapurnako besoa bukatzeaz, baina gailurra inoiz baino eskuragaitzago zirudienean, ordea, eskua luzatu zien mendiak. "Kasualitate hutsez iritsi ginen leku batera, non 25 metroko rapel bat eginda, gailur nagusiaren maldatera jaisten ginen. Gorago eta beherago ezinezkoa zirudien. Salbazioa izan zen hura!". Behin gailur nagusiaren maldetara iritsita, orduan ikusi zuten gailurra eskuan, besoaren amaiera.

Gailurrera bideko maldak leundu zirenean, buruak eta gorputzak bide desberdina hartu zuten ertzean lehenengo aldiz. Oin arrastoak tontorrera- ko bidea ari ziren zabaltzen elurretan, eta burua, aldiz, oroimenaren bideak urratzen hasi zen. "Bide horretan, jakina, izugarri gogoratu nintzen Felixekin eta oroitzapen horiei helduta atera nuen tontorrerako indarra", adierazi du Albertok. Azken zortzimilakoan ere elkarren ondoan ziren bi



ARGAZKIAK: ALBERTO INURRATEGI

# LA ASCENSIÓN AL ANNAPURNA VISTA POR

Jean Christophe Lafaille

**A** las 10 de la mañana del 16 de mayo de 2002 alcanzaba la cumbre del Annapurna. A través del radioteléfono transmití mi alegría a Katia, mi mujer. La emoción era intensa.. Los dos lloramos.

1992. Con 27 años de edad, partí con Pierre Beghin hacia la cara sur del Annapurna; era mi primera experiencia en el Himalaya. Cuando nos encontrábamos a 7500 metros de altitud decidimos retirarnos en medio de la tempestad que se había desencadenado la tarde anterior y que no parecía perder fuerza. En el momento de abordar el descenso en rappel, el anclaje del que pendía Pierre cedió y cayó por el abismo de la cara sur ante mis ojos aterrorizados. De pronto, me encontré perdido en esta inmensa soledad. Mi regreso hacia la base, hacia la vida, con un brazo roto por una caída de piedras, sin material, en una pared vertiginosa y con 2000 metros a descender, duraría cinco días.

1995. Decidí regresar en solitario a la cara sur del Annapurna siguiendo esta vez el espolón Bonington. A 300 metros de desnivel por debajo de la cumbre tomé la decisión de abandonar de nuevo a causa de las condiciones meteorológicas inestables que me rodeaban.

1998. Nuevamente retorné a la misma vía Bonington, en esta ocasión con otros tres compañeros de expedición. La montaña se encontraba con una fuerte carga de nieve. Bajo el campo I, a 5700 metros de altitud, se produjo un accidente: cuatro sherpas eran arrastrados por una avalancha, uno de ellos perdería la vida... Había dicho: nunca más el Annapurna, nunca más esta "maldita" montaña... Eran demasiadas muertes, demasiados accidentes, demasiados recuerdos...

A partir de esas experiencias, ascendí en la primavera de 2000 el Manaslu y al año siguiente alcanzaba la cima de la montaña de las montañas, el K2.


2002. Se me presentaba la posibilidad de compartir un permiso para la cara sur del Annapurna. El americano Ed Viesturs, que cuenta con doce los catorce ochomiles, era el líder de la expedición. Me puse en contacto con él a través del correo electrónico. Mi impresión sobre el grupo era buena y me sentía con fuerzas para regresar a esta montaña por cuarta vez, diez años después de mi primera tentativa....

Yo pretendía superar la cara sur por un itinerario nuevo y en solitario, pero las condiciones de la pared no eran las adecuadas y me acomodé al proyecto del resto de llegar a la cumbre siguiendo la inmensa arista este, un recorrido de 7,5 kilómetros por encima de 7500 metros de altitud para poder alcanzar la cima a 8091 metros. La primera y hasta ahora única ascensión por este itinerario había sido realizada por los suizos Erhard Loretan y Norbert Joss. Ambos descendieron desde la cumbre por la ruta normal hacia la vertiente norte.



ARGAZKIA: J. CH. LAFAILLE

6



5

ARGAZKIA: J. CH. LAFAILLE

anaiak. Gailurra, Messnerrek dion eran, ez da hausnarketarako tokirik egokiena. Emozioa bai, bi mendizaleren arteko besarkada sentitua ere bai, baina berehala eginbeharrak: irudiak hartu, talkie bidez gailurraren berri eman, argazkiak...

## ■ TENTSIOA HIRUGARREN BIBAKEAN

Gailurrean burutik pasa zitzaien ipar aurpegitik jaitea, Loretanek eta Joosek egin bezala; rupia batzuk ere bazeramatzaten badaezpada motxilan, baina joandako bidetik bueltatzea erabaki zuten, ordurako bere sekretuak -eta hortzak- erakutsiak zizkien ertzetik. Roc Noir azpian bibaka egin zuten lekura iristea zen Alberto eta Lafaileren asmoa, han material eta janari biltegitxo bat utzia baitzuten, baina oso urrun zegoen hura, urrunegi. Gailurretik buelta-ko lehen ordu horiek gogorrak izan ziren. Bakoitzak bere pausoari helduz, ikusi zuten ezingo zutela material biltegitira iritsi eta erdibidean jarri zuten denda. "Lafaileren emaztea kanpaleku nagusian zen eta senarrarekin talkiez hitz egin zuenean, berehala konturatu zen inoiz baino nekatuago zegoela", dio aretxabaletarrak. Alberto bera ere nekatuta zen oso, eta kezkatuta ere bai: Lafaileren nekeak eta haizearen zakartzeak piztu egin zituen lehendik piztu gabeko argi gorri guztiak. Gainera, su txikia bai, bazuten, baina ur pixka bat urtzeko gas hondarra besterik ez... Bibak hura ez zen, ez, gozoa izan. Igoera osoan bezalaxe, une horietan biziki eskertu zituzten Lazkano eta konpainiaren hitz lasaigarriak eta babesa.

Egunargiarekin ordea, bezperan ilun samar ageri zen panorama ere argitu zen. Lafaillek osatuago zirudien, haizeak bareago, eta pobreaken etxean gutxi behar denez, frantziarrak bi barratxo energetiko atera zituen motxilatik. Hura gosaria hura! Lasaitu ederra hartu zuen Albertok: "Moral berrituarekin ekin genion bideari; bagenekien, gainera, bi ordutara biltegia genuela, ura egin eta jateko modua. Hara iritsitakoan denda jarri eta pare bat ordu egin genituen jaten, edaten eta atseden hartzen". Roc Noir geratzen zen oraindik, Haitz Beltza. Gorakoan beltzak eta gorriak ikusitako aldapatzarra. "Behar ez genituen gauzak utzi eta motxilako pisua arinduta eta bi egun lehenagoko hanka arrastoan laguntzarekin igo genuen aldapa. Gero jaisten denbora pixka bat pasatu genuen rapelatzen, baina bagenekien behin hura jaitsi eta gero salbu ginela".

Maiatzaren 18an, Annapurnako besorik luzeenetik bueltan, Jon Lazkano izan zen topatu zuten lehenbiziko laguna. Soka finkoak eta haiek segurtatutako loturak errebisatzera igo zen bergararra lehen kanpamenduraino. Alberto gutxitan poztuko zen hainbeste Lazkano ikusteaz. Ondoren, kanpaleku nagusian ongiatorri beroa, zorion eta lasaitasun besarkadak, malko batzuk ere bai, eta otordu oparoa. Halako batean, begiratua jaso ertzera eta besoa lainopean ikusi zuten, eguraldiak okerrera egin zuen. Besorik luzeenean, esku bat luzatu zien Annapurnak berak. □



ARGAZIA: ALBERTO IÑURRATEGI

Al atardecer del 14 de mayo instalamos nuestro vivac sobre la arista a 7400 metros. Al día siguiente continuamos la ascensión sin que surjan excesivas dificultades técnicas. Han pasado ya cinco días desde nuestra partida del campo base. Al final de la jornada montamos un nuevo vivac a 7900 metros, bajo la Cima Este. Hablo con Katia. Estamos cerca de la cumbre, pero dudo: el parte meteorológico adelanta que durante el día 16 el viento seguirá encalmado, pero que a partir de ese momento se incrementará progresivamente. No estoy seguro de que podamos salir de la arista para el 17. Una hora más tarde, en un nuevo contacto, transmito a Katia nuestra decisión de continuar hacia la cumbre, hacia el Annapurna.

"E

*S, ciertamente, difícil encontrar las condiciones de Alberto entre quienes frecuentan las cumbres del Himalaya. Con él, el equilibrio entre la rapidez, la experiencia, la madurez y la autonomía ha sido perfecto"*

El 8 de abril arribo al campo base, situado a 4200 metros. Redescubro de nuevo la cara sur y constato de inmediato que mi proyecto sobre esta muralla resulta inabordable: demasiado hielo y demasiada roca desnuda. No me importa: la gran arista este constituye un hermoso itinerario, menos técnico, pero muy estético. El conjunto de la expedición lo formamos tres vascos, entre ellos Alberto Iñurategi, que va a intentar su decimocuarto ochomil, el americano Ed Viesturs, que forma equipo con el finlandés Veikka Gustafsson y yo.

En la ruta instalamos tres campamentos, a 5400, 6400 y 7000 metros. Pero tras cinco semanas de trabajo no hemos podido superar los 7300 metros a causa de un viento del infierno, que no ha calmado desde nuestra llegada al campo base y que alcanza entre 100 y 160 kilómetros de velocidad en la cota de 8000 metros. Hasta rebasar los 7000 metros nos encontrábamos al socaire del viento, pero desde el momento en que nos asomamos a la arista, a 7300, nos resulta imposible protegernos.

Katia, mi mujer, se encontraba en contacto con un meteorólogo especializado en predicciones para las expediciones de Nepal, el cual le transmitía el informe diario, que ella me comunicaba de inmediato. El propio técnico estaba extrañado con la persistencia de aquel viento que se mantenía sin tregua desde hacía varias semanas. Por fin un paréntesis de calma parece anunciarse por encima de 7000 metros. De inmediato elaboro una estrategia de ascensión con el objeto de optimizar de la mejor forma posible ese espacio anunciado de buen tiempo.

Tres días. El cálculo es rápido; evalúo el tiempo que necesitaré para llegar a la cima y regresar al campo base... en torno a ocho días. Es preciso que cubra el recorrido de la arista este en esos tres días si no la trampa del Annapurna se volverá a cerrar en torno a mí. El abordar la arista este suponía 15 kilómetros de recorrido en la zona de la muerte, entre 7500 y 8091 metros, un tramo increíblemente largo y, sobre todo, extremadamente comprometido: si se levantaba el viento no había ningún escapatoria; me convertiría en la presa del Annapurna.

La decisión está tomada, con el resto de los miembros de la expedición abandono el campo base en la mañana del 11 de mayo, con el plan de alcanzar sucesivamente el campo I el 12, el II el 13 y el III en la jornada siguiente. Ese mismo día llegaba al campo base Katia para estar más próxima a mí en esta escalada. El día 14, junto a Alberto Iñurategi, me embarco en la aventura de la arista. El resto decide abandonar el intento y regresar al base, ante las peligrosas condiciones de nieve que encontramos al superar la Roc Noir.

Nadie más que nosotros dos, Alberto y yo, sumergidos en esta inmensa soledad. Poder hablar con Katia en estas circunstancias era reconfortante y al mismo tiempo confuso el sentirle tan cerca y, al mismo tiempo, tan lejana.

El 16 la fatiga se empieza a hacer presente. Según el relato de Loretan, existía todavía por superar un paso técnico con un rappel a 8000. Las condiciones que nos encontramos son ahora bien diferentes: hay carencia de nieve y la roca aflora descompuesta. Resuelvo acometer este caos de rocas podridas en «Dry tooling» usando mis dos piolets-tracción. La cumbre está ahí, a 200 metros por encima de nuestras cabezas. Un paso, otro más... A las 10 horas de esa mañana alcanzamos la exigua y magnífica cumbre del Annapurna, con un mar de nubes a nuestros pies. Le transmito mi alegría exultante a Katia. El momento está cargado de una fuerte emoción.. A los dos se nos saltan las lágrimas.

Tras mi accidente con Pierre Beghin en 1992 en esta montaña, había decidido escalar en solitario más frecuentemente. No quería revivir la imagen de la muerte en directo y, sin embargo, tan presente en el Himalaya. Con Alberto y el resto de los miembros de esta expedición yo me he reencontrado en un grupo y el curso de la escalada ha ido seleccionando los equipos de forma natural. He disfrutado compartiendo esta ascensión y estos instantes excepcionales con Alberto, con el que he formado un equipo en el que éramos autónomos y capaces ambos de afrontar la escalada. Es, ciertamente, difícil encontrar sus condiciones entre quienes frecuentan las cumbres del Himalaya. Con Alberto el equilibrio entre la rapidez, la experiencia, la madurez y la autonomía ha sido perfecto. Este equilibrio nos ha permitido hollar conjuntamente la cumbre.


La experiencia vivida en el Annapurna ha sido la más difícil de cuantas he tenido en el Himalaya. Hasta ahora nunca había percibido una sensación de aislamiento de la vida tan grande como durante los tres días que permanecí sobre la arista este del Annapurna. □

- 5 ■ Alberto Annapurna nagusiko azken aldapetan
- 6 ■ Eguraldiak okerrerako joera hartu zuen
- 7 ■ Annapurnaren hego horma 4200tik ikusita
- 8 ■ Alberto eta Jean Christophe gailurrean



ARGAZIA: J. CH. LAPAILLE

## CRONOLOGÍA DE LOS TRECE OCHOMILES ANTERIORES



Annapurna  
16-05-02



### SHISHA PANGMA (8027 m)

Gailur eguna: 1996-10-11  
Igotzaileak: Alberto eta Felix Inurrategi eta Josu Bereziartua.  
Bidea: Hegomendebaldeko aurpegia, britainiarren bidea

#### Zorigaiztoa, nekea eta arrakasta

Irailean hasi eta urriaren erdialdean bukatu zen espedizioak denetarik izan zuen. Samina eta tristura, Jose Luis Zuloaga Zulu Ice Tooth mendian geratu baitzen betiko, eta Juanito Oiarzabal larri zaurituta. Bailarara jaitsi eta erronka ahazteko zorian, saiatzea erabaki zuten espedizio guztiek beherako bidea hartuta zutela. Eguraldi onaren laguntzarekin, urriaren 11n iritsi ziren gora.

**Ice Tootheko istripua.** Girotea egiten ari zirela, elurrolde batek azpian harrapatu zituen Zulu, Juanito Oiarzabal eta Alberto bera. Zulu han geratu zen betiko, Juanito larri zaurituta eta Alberto onik.



### MANASLU (8164 m)

Gailur eguna: 2000-04-25  
Igotzaileak: Alberto eta Felix Inurrategi.  
Bidea: Ipar ekialdeko aurpegitik edo ohiko bidetik

#### Neguan ezin eta udaberrian nekez

Erronka itzela hartu zuten bizkarrean bi anaiak: zortzimilako bat negu betean igotzen saiatzea. Baina amore eman behar izan zuten hotza eta haize bortitzari ezin utsita. Udaberrian itzuli ziren, baina hotzak bere horretan jarraitzen zuten, aroa neguan baino epelxeagoa bazen ere. Elur arrastoa ireki behar izan zuten eta txandaka gozatu gailurreko paisaiak. Manaslu oso tontor tenea da, eta ezin biek batera gozatu.

**Felixek izozte arinak.** Etxean oinetakoekin nahastu eta Albertoren mendiko botekin egin behar izan zuten igoera Felixek. Hotz handia egin zien igoera egunean eta Felixek izozte arinak eduki zituen. Ez zuen halako zortirik izan Pepe Garcesek. Espainiarra beranduago iritsi zen gailurrera, eta izozte larriak izan zituen.



### MAKALU (8463 m)

Gailur eguna: 1991-09-30  
Igotzaileak: Alberto eta Felix Inurrategi, eta Felipe Uriarte.  
Bidea: Kukuczka espoloia

#### Geroaren adierazle

1990ean, Felixek 23 eta Albertok 22 urte betetzeko zituztela, ekin zioten Himalayako bideari, Lehen aldi hartan ez zuten zortzimilakoa aukeratu, altuera apalagoko mendi bat baizik: egun zorigaiztoko oroimena dakargun Pumori. Bueltan zortzimilakoaren urratsa egin eta Makalu aukeratu zuten. Eta hasiera-hasieratik bilatu zioten proiektu bakoitzari berezitasun bat, pizgarri bat. Makalun Kukuczka espoloia aukeratu zuten, ohiko bidearen aldamenetik doan bide zuzenago bat.

**Gailurrean txanorik gabe.** Gailurreko argazkiak ondo erakusten du bi anaien eskarmentu falta. Txanorik gabe eta eskuetan babes handirik gabe ageri dira bi anaiak. Gero hirugarren kanpalekuan su txikiak hondatu eta ezin izan zuten urik edan. Horren guztiaren eraginez, izozte txiki batzuk izan zituzten hatzetan.



### CHO OYU (8201 m)

Gailur eguna: 1995-09-11  
Igotzaileak: Alberto eta Felix Inurrategi eta Ong Chu sherpa.  
Bidea: Ohiko bidea

#### Bi eguneko igoera azkarra

Garaiko marka guztiak hautsi zituzten bi anaiak eta bi egunetan iritsi ziren Nang Pa La lepotik gailurrera. Kanpaleku bakarra jarri zuten, 6.800 metroan. Irailaren 9ko ilargi betearen zain egon ziren, egun harekin montzoiak atsedean txikia hartuko zuten itxaropenarekin, eta hala izan zen. Bost egunetan egin zuten beheko kanpalekutik gailurrerako bidea eta itzulikoa. Ahalegin fisiko handia egin zuten.

**Lagun atsegina ondoan.** Lagun handia alboan izan zutela egin zuten bi anaiak igoera: Ong Chu sherpa. Egoskurtu eta bikotearekin goraino igo nahi zuela esan eta hala egin zuten, sarri Alberto eta Felixen pauso azkarrari segitzeko ezinean aritu bazen ere.



### BROAD PEAK (8047 m)

Gailur eguna: 1997-07-13  
Igotzaileak: Alberto eta Felix Inurrategi.  
Bidea: Ohiko bidea.

#### Bigarren platerarekin konformatu behar

Zortzimilako guztietan egin legez, Broad Peaken ere igoera berezia egiten saiatu ziren. Bide berria irekitzen saiatu ziren hego-mendebaldeko ertzetik, baina Euskadi izena hartu behar zuten bidea asmo hutsean geratu zen, hilabete eta erdi luzean gailurreraino heltzen saiatu baziren ere. Beheko kanpalekura iritsi eta bi egunetan lortu zuten zortzigarren zortzimilakoa. Gailurrean beste guztiekin sentitutako poza sentitu zuten, bigarren platerarekin konformatu behar izan bazuten ere.

**Messenrren harridura.** Beheko kanpalekutik igaro zen hego tiroldarra eta hegomendebaldeko ertzean gora zihozten bi mendizale haiek zein ziren galdetu zuten: «Inurrategi anaiak», erantzun zioten.



### GASHERBRUM II (8035 m)

Gailur eguna: 2000-07-28  
Igotzaileak: Alberto eta Felix Inurrategi.  
Bidea: HMko espoloitik edo ohiko bidetik

#### Mendizaletasunaren aurpegi tristea

7.300 metro arte beste mendizaleek irekitako arrastoari jarraitu zioten, eta handik gorako bidea eurek ireki. Ordubet pasatxo igaro zuten gailurrean, eguraldi ona lagun, paisaia dotoreekin gozaten. Bigarren kanpalekuraino ere (6.900 metro) eroso, lasai jaitsi ziren. Aurrenekoraino jaitea erabaki zuten, baina itxuraz, helduleku bat askatu eta Felix mendian behera amildu zen, 400 bat metro.

**Samin handia Euskal Herrian.** Felixen heriotzaren berri arratsaldeko lehen orduan heldu zen Euskal Herriera. Inurrategi anaiak ezagunak ziren, maitatuak oso beraien izaera xume, alai eta zintzoagatik. Euskal Herriko jende asko malkoei ezin utsita egon zen egun hartan.



### EVEREST (8848 m)

Gailur eguna: 1992-09-25  
Igotzaileak: Alberto eta Felix Inurrategi.  
Bidea: Hego-ekialdeko bidea, ohikoa Everesten.

#### Oxigenorik gabe

Bigarren zortzimilakoak egin zituen ezagun bi anaiak. Everestek, altuenak. Erronka ez zen altuena gainditzea, oxigenorik gabe egitea baizik. Garbi zuten bonbonarik gabe igo nahi zutela. Eurek Joserra Zubizarretari, kanpaleku nagusian zegoen lagunari, adarra jotzeko gogoa bazuten oraindik, buelta hartu behar zutela esan baitzioten. "Ezetz ba, motel... 300 metro barru zaukaagu tontorra". Halaxe zen. Oxigenorik gabeko lehen euskal igoera izan zen.

**Alberto, igotzailerik gazteena.** Alberto Inurrategik 23 urte zituen Everesteko tontorra zapaldu zuenean. Munduko tontorrera iritsi zen gazteena izan zen bere garaian.



### K2 (8611 m)

Gailur eguna: 1994-06-24  
Igotzaileak: Alberto eta Felix Inurrategi, Kike de Pablo, Juanito Oiarzabal eta Juan Tomas. Bidea: Hego, hego-ekialdeko bidea, Cessen bidea. Harrezkero, euskaldunen bidea izenez ere ezagutzen da.

#### Igoera perfektua

Bi saiakera egin zituzten munduko mendi ederrenetakoan. Txinatik, Ipar ertzetik saiatu ziren 1993ko udan, baina eguraldi kaskarrak eta elur baldintza txarrak ezinezkoa egin zuten igoera. Urtebete geroago ahalegindu ziren berriro, Pakistandik oraingoan, eta hilabete eskasean zapaldu zuten munduko bigarren gailur garaiena, igoera dotorea eginda, Cessen bide bukatu gabetik.

**Poza eta samina hilabete batean.** Inurrategitarren gailurreko poza zeharo ilundu zen hilabete eskasera. Atxo Apellaniz arabarra K2ren magalean geratu zen betiko.



### LHOTSE (8516 m)

Gailur eguna: 1995-09-27  
Igotzaileak: Alberto eta Felix Inurrategi.  
Bidea: Ohiko bidea, IMko aurpegitik, Khumbu glaziarretik.

#### Lehen euskal igoera, lehena era alpinoa

Cho Oyutik jaitsi eta bi aste pasatxoan Lhotse gailurrera heldu ziren. Era alpinoa egin zen lehen igoera, eta lehen euskal igoera izan zen hura. Tarteko kanpalekurik jarri gabe, beheko kanpalekutik tontorreraino jarraian igo ziren. Azken egunean eguraldi haizetsua eta hotza izan zuten, eta gailur zorrotzean ikuspegiarekin gozatzeko aukera gutxi izan zuten.

**Oiarzabal eta Vallejo, Inurrategitarren arrastotik.** Lehen euskal igoera izan zen Alberto eta Felixena, baina haiek gailurrera heldu eta bost egun eskasera gauzatu zen bigarrena. Juanito Oiarzabal eta Juan Vallejo arabarrek ederki baliatu zituzten Aretxabaletako azalpenak.



### KANGCHENJUNGA (8586 m)

Gailur eguna: 1996-05-06  
Igotzaileak: Alberto eta Felix Inurrategi eta Juanito Oiarzabal.  
Bidea: Iparraldetik, britainiarren bidea.

#### Britainiarren bidea jarraituz

Doug Scott, Peter Boardman eta Joe Tasker britainiarrek 1979. urtean igo zuten bidea hautatu zuen euskal espedizioak, konpromiso handiko bidea. 6.800 metro arte eroso igo ziren, eta Dorre Handia ere (7.800 metro) ondo gainditu. Gailurrerainoko bidea oso gogorra izan zen, nekeza, eta gailurra ikusten ez zutenez, bueltako bidea hartzeko zorian egon ziren. Azkenean goraino heldu ziren.

**Juanito Oiarzabalen ezina.** Juanito Oiarzabalek gorriak ikusi zituen. Azken egunean Inurrategi anaien sokara lotu eta horri esker igo zen, zituen indar guztiak ahalegin horretan xahututa. Beherakoan ezinean aritu zen eta bi anaiak beherantz lagundu zitotako heldu zen kokagune ziurrera.



### DHAULAGIRI (8167 m)

Gailur eguna: 1998-05-22  
Igotzaileak: Alberto eta Felix Inurrategi eta Juanito Oiarzabal.  
Bidea: Ohiko bidetik

#### Laugarren ahaleginean

Dhaulagirik ez du mendi zailaren izena, bereziki, baina kostata lortu zuten bertaratutako euskal mendizaleek 8.167 metroko tontorrera iristea. Eguraldi petralak batzuetan, elurraren egoera txarrak bestetan, eta gailurrerako bide zuzena aurkitzeko zailtasunek hurrena, asko zaildu zuten igoera.

**Gailurrerako bidearekin nahastuta.** Maiatzaren 3an tontor batera iritsi ziren Oiarzabal, Bereziartua eta Vallejo, baina goian zeudela hura Dhaulagiriko tontor nagusia ez zela ohartu ziren. Gune hartatik gailur nagusira iristea ezinezkoa zela ikusita, Oiarzabal haserre mintzatu zen. Gainerako taldekide guztiak mendia utzi zutenean, Juanitok berak eta bi anaiak azken ahalegin bat egin zuten eta orduan bai, lortu zuten tontorra.



### NANGA PARBAT (8125 m)

Gailur eguna: 1999-07-29  
Igotzaileak: Alberto eta Felix Inurrategi eta Jose Carlos Tamayo.  
Bidea: Kinshofer bidea

#### Egitasmo bitxi baten amaiera ederra

Inurrategi anaien hamargarren zortzimilakoa izan zen Nanga Parbat, Mendi Biluzia, eta TVEko 'Al filo de lo imposible' saioko egitasmo bitxi baten akabera izan zen. Ogoño (Euskal Herria) Olimpo (Grezia) Demavend eta Alan Khu (Iran) eta Izenik Gabeko Dorrea (Pakistan) eskalatu zituzten Nanga Parbat igo aitzin. Bigarren ahaleginean heldu ziren gailurrera bi anaiak eta Tamayo bizkaitarra.

**Erreskate lanak.** Mendizale alemaniar bat hirugarren kanpalekuan zaurituta zegoela jakin eta bigarneraino igo ziren Inurrategi anaiak eta Tamayo, eta handik, mendizalea nola-hala jaitsi behera. Gipuzkoako Aldundiaren gizatasunaren saria jaso zuten gero hiru mendizaleek.



### HIDDEN PEAK (8068 m)

Gailur eguna: 2001-07-08  
Igotzaileak: Alberto Inurrategi eta Jon Beloki.  
Bidea: Japoniarren couloir-etik edo ohiko bidetik.

#### Sokalagun berriarekin

Jon Beloki zarautzarrarekin igo zuen Alberto Inurrategik bere azkenurreko zortzimilakoa. Urtebeteko gau iluna, luzea, amaitu zen Albertorentzat. Himalayara joan gabeko epea bukatutzat eman zuen. Belokirentzat lehen zortzimilakoa zen, baina ez zuen arazorik izan gailurreraino heltzeko.

**Felixen pioleta gailurrean.** Aurreko urtean Hidden Peak igotzeko prest utzitako materialean Felixen pioleta hartu zuen Albertok eta gailurreraino eramanda merezitako gorazarrea egin zion anaiari. Felix gabe, baina haren arimaren parte bat bihotz-bihotzean zuela, hamahirugarren zortzimilakoa igo zuen Albertok, egunsenti eder baten lehen eguzki printzekin batera.



Annapurna  
16-05-02

FOTOS ARCHIVO ALBERTO INURRATEGI